

URRETXU / Gainzuri Ikastetxean gaur Liburuaren Eguna ospatzen da

URRETXU. DV. Gaur ostiralean, apirilaren 28an liburu eguna ospatuko dutenez, Gainzuri ikastetxeak bere ikasleentzako ekitaldi berezi bat prestatu du.

Aurten honako hauek izango dira burutzeko ekintzak: Haur Hezkuntzako ikasleek eta Lehen Ziklokoek 1. eta 2. mailakoek ipuin kontaketa, kareta ekoizpena eta antzezpena izango dituzte.

Bigarren Zikloko ikasleek, berriz 3. eta 4. mailakoek, ipuin kontaketa eta bineta ekoizpena burutuko dituzte. Hirugarren Zikloko ikasleek 5. eta 6. mailakoek, bere aldetik, irakur lehiaketa egingo dute. Gainera, egunean zehar Gainzuri ikastetxean, ikasleek osatutako txosten, ipuin eta liburuak guraso zein ikasleentzako ikusteko aukera izango dute.

Ekitaldiak

Haur Hezkuntza: Ipuin kontaketa, musika gelan izango da, 3 urteko haurrentzat Patxiku; 4 urteko umeentzat Nola Dastatu eta 5 urtekoentzat Armairuan Amets Bat. Txotxongilo ekoizpenari ere egingo dute plastikan gelan. Lehenengo Zikloa: Ipuin kontaketa, musika gelan izango da, 1. mailakoentzat Munstro bat Ohe Azpian; 2. mailakoentzat Bizarbeltz Kapitaina. Txotxongilo emanaldia Liburutegian izango da. Bigarren Zikloa: Ipuin kontaketa, musika gelan. Hirugarren maila Bizarbeltz Kapitaina eta 4. maila: Oparia. Txotxongilo emanaldia Liburutegian. Hirugarren Zikloa: 5. mailan Irakurketa maratokia eta Ipuin kontaketari ekingo diote. Seigarren mailan: Bideo saioa, Istorioa sortu eta Besteei kontatu.

Liburuak plazara

Zumarraga eta Urretxuko Liburutegiak eta udalak antolaturik, datorren maiatzak 16, 23 eta 30, eta ekainak 6 Liburuak Plazara ospakizuna izango da. Aurten honako ekitaldiak izango dira azpi maratzekoak: Ipuin kontaketa eta ikastaroak hain zuzen ere, Zumarragako udal liburutegian. Maiatzaren 18an, Urretxuko Udal Liburutegian, 19:00tan, osteguna Ikuskizuna: Erloju Lehorrak (Poesia, narrazioak, musika eta pintura). Maiatzak 26, Labeaga Aretoa, 19:00etan, ostirala, dokumentala: Oteiza Tiembra (Felix Marañaren eskuako,... Aurkezpena, proiektzioa eta solasaldia. Ekainaren 2an, ostirala, Urretxuko udal liburutegian, iluntzeko 19etan, Javier Ramos Martinezen Enrike Zelaia, Infernu hauspoa, liburuaren aurkezpena.